

✿ Hitz eta Pitz ✿

Joxan Ormazabal: literatur bide guztiak ibili dituen bidaiari nekaezina

Joxan Ormazabal (Zegama, Gipuzkoa, 1948). Irakasle-ikasketak ikasi eta urte batzuetan irakasle izan zen. 1981etik aurrera, Elkarlanean argitaletxean egin du lan, berriki erretiroa hartu du. Berak gertutik bizi izan du euskal haur eta gazte literaturaren eboluzio handia hastapenetatik gaurdaino (eta protagonista izan dela esan genezake). Idazten berandu samar hasi bazen ere, dagoeneko liburu asko ditu argitaraturik. Haurrentzat idazten du, eta idatzi bakarrik ez, itzulpenak egin ere bai.



1. Zu izan zara euskal editorerik garrantzitsuena HGLn (bai argitaratutako liburu kopuruagatik, bai ardura horretan emaniko denboragatik). Nola ikusten duzu HGLren eboluzioa, zuek hasi zinetenetik gaur egun arte?

Ez zait iruditzen ni izan naizenik HGL arloko euskal editorerik garrantzitsuena, beste arrazoi batzuen artean inoiz ez dudalako lan hori neuk bakarrik aurrera eraman. Eta ez zait egokia iruditzen lan hori era horretan pertsonifikatzea, ez laudorioak jasotzeko garaian eta ezta kritikak jasotzeko garaian ere. Taldearenak izan dira lorpenak, eta taldearenak porrotak. Ofizio txarra da hori aurrera bakarrik eramateko. Ez nuke nahi.



Ni argialetxean lanean hasi nintzen garaitik gaur egunera nabarmena eta etengabekoa izan da eboluzioa. Orduan idazle askok eta askok euskara «salbatzeagatik» edo antzeko zerbaitegatik idazten zuten, euskarazko liburu gutxi zegoelako, gure hizkuntzaren egoeragatik... Gaur egun, ordea, helburuak literarioagoak direla esango nuke. Ari ote gara, ba, normalizaziora heltzen? Gaur egun orduan baino baliabide askoz gehiago ditugu: hizkuntza literarioa bera, mundu mailako informazioa, aldizkariak, literatur sariak, liburu-ugaritasuna, erakunde edo elkarteak, teknika-aurrerapenak...

2. Duela gutxi arte editorea izan zaren aldetik, nola ikusten duzu gaur egungo Euskal HGLa? Krisirik sumatzen al duzu (salmentetan, kalitatean)? Tematiketan aldaketarik sumatzen al duzu?

Euskal HGLa nola ikusten dudan? Normal samar. Zer nahi duzu, ba, esatea? Ni editore lanetan hasi nintzenez baino askoz hobeto, eta teorikoeak exijitzen duten baino okerrago. HGLa ez da gauza

isolatu bat, gizartearekin, teknikarekin, ohiturekin, informatikarekin, telebistarekin, eskolarekin... dago lotuta. Nik, neure gusturako nahiago nuke jendeak liburuetatik gehiago irakurriko balu, baina ez naiz inor hori inori exijitzeko. Dena dela, uste dut haur eta gazteek helduek baino gehiago irakurtzen dutela. Nire ustez, irakurtzeak badu garrantzia, baina ez zaio daukana baino gehiago eman behar. Irakurtze kontu hau ez genuke arazo bezala planteatu behar, aukera onuragarri bezala baizik.

Krisia? Salmenta aldetik, beste alor gehienetan bezala, bai, krisia nabari da. Kalitateari dagokionez, oro har, hobera goazela deritzot, bizitzako beste arlo askotan bezala. Normal samar goaz aurrera nire begientzat.

Tematika zabaltzen ari da HGLn. Inoiz erabili gabeko gaiak lantzen dira, topiko asko baztertu ere bai... Hala ere, batzuetan pedagogikeria gehiegi nabaritzen da testuetan, literaturaren bidez mundua aldatzeko joera hori.

3. Belaunaldi berriek egin al diote ekarpenik gure literaturari?

Belaunaldi berrien esku dago etorkizuna edozein arlotan ere. Nik uste dut gogoz ari direla lanean idazle gazteak, eta asko eta asko gai direla haur eta gazte-literatura zaharberritzeko eta hobegotzeko. Batzuetan pentsatu izan dut guk, hain gazteak ez garenok, ez ote diegun espazioa gehiegi jaten. Gauza bertsua gertatzen da bertsolariekin ere. Zerbait egin beharko genuke gazteen ekarpen hori ugariagoa izan dadin, ugariagoa eta kalitatezkoa. Ez litzateke gaizki etorriko «Igartza saria» bezalako lehiaketa bat haur eta gazte-literatura idazten duten gazteentzat.

4. Nola baloratzen duzu zuk generoen arteko desoreka?

Errealitate bat da. Zer izango litzateke desorekarik ez egotea? Antzerkian eta narratiban testu kopuru bera argitaratzea? Edo urtean hogeita gehiago poesia liburu argitaratzea haur eta gazteentzat?

Desoreka hori, desoreka bada, beste hizkuntzetan ere ematen dela iruditzen zait, nahiz eta datu zehatzik ez dudan esku artean.

Poesia gutxi argitaratzen da, gutxi saltzen delako, eta gutxi saltzen da, gutxi irakurtzen delako. Jendeak poesia gehiago irakurtzea komeni al da? Nork ikusten du behar hori? Eta noren ardura da hori lortzea?

Antzerkia poesia baino are gutxiago argitaratzen da. Hori zergatik da? Ziur asko antzerkia irakurtzeko baino gehiago antzezteko delako.

HGLn ipuinak eta nobelak argitaratzen dira gehien, horiek direlako gehien irakurtzen direnak.

Bai, generoen artean desoreka badago, baina zaila da oreka non egongo litzatekeen erabakitzea, eta erabakiko balitz, oreka hori lortzea.

5. Zer esango zenuke azken urte hauetan ilustrazioak izan duen bilakaeraz? Eta horrekin batera, Euskal Herrian, euskaraz (sortuak edo itzulitakoak), duela





gutxi arte (oraindik ere hobetzeko bidea dago) album ilustratuen kopuru eskasa zegoen. Tarttalo bezalako argitaletxe batek adibidez, ia beti jo izan du itzulpenetara (frantsesetik, batez ere), hemengo idazle/ilustratzaileekin album ilustratuak sortu gabe. Zergatik izaten al da hori?

Azken urte hauetan ilustrazioaren bilakaera oso positiboa izan da. Alde batetik, ugaritu egin da ilustratzaileen kopurua, eta, gaur egun, lehen baino askoz garrantzi handiagoa ematen zaio maketazioari eta ilustrazioari.

Esango nuke belaunaldi berriak, proportzioan, idazle baino ilustratzaile gehiago eman dizkigula.

Album ilustratuak. Haur-literatura munduan dabilzan batzuk erabat obsesionaturik daude albumen kontu honekin. Ni ere album zalea naiz, bai irakurtzerakoan eta baita idazterakoan ere. Baina albumak garestiak dira argitaratzeko garaian, eta zer esanik ez erosterakoan. Euskarazko album originalak argitaratzea oso zaila ikusten dut nik gaur egun; horregatik jotzen dute euskal argitaletxeek itzulpenetara edo koedizioetara.

Batzuek esaten dute albumek ez dutela zergatik garestiak izan, formatu txikiago eta edizio

xumeagoetan ere argitara daitezkeela. Eta, orain, galdera bat bururatzen zait niri, oinarrizko galdera: Zer da, orduan, album bat? Hor, beste «Behinola» baterako gaia.

6. Zer nolako harremana izan duzu idazleekin beraien lanak bideratu behar izan dituzunean?

Beti saiatu naiz idazleekiko harremanetan zintzo jokatzeko, begirunez eta arduraz. Hanka sartzeak ere egingo nituen, baina oro har oso gustura nago idazleekin izan ditudan harremanekin. Idazle bakoitzak bere izateko eta pentsatzeko modua du, eta editoreak denekin konektatzen jakin behar du. Niretzat gogorrena idazleek ekarritako originalei ezetza ematea izan da. Ezetak edo baietak taldean erabaki izan ditugu, baina, hala ere, editore batek hartu behar izaten du idazleari iritzia emateko ardura. Arazoren bat edo beste izan badut, oso gutxi egia esan, originalen bat ez onartzetik etorri zait. Original bat onartzen denetik argitaratu arte, harreman estua eduki behar izaten da egilearekin, eta prozesu horretan idazlearen eta editorearen elkar ezagutzan asko sakontzen da. Eta hori bientzat izaten da aberasgarri.



7. Sortzaile zaren aldetik zein arlotan zaude gusturago: poesian, ipuin laburretan...?

Nire literatur eremurik gustukoena poesia eta ipuinak dira. Nik beti haurrentzat idazten dut, eta testu nahiko laburrak. Korrikalaria izan banintz, ehun metroko lasterketetan parte hartuko nuen nik. Labur eta ondo idaztea da nire helburua, ea egunen batean lortzen dudana.

8. Zure lanetan umoreak pisu handia izan du. Nola jorratu duzu arlo hori?

Umoreak nire lanetan bakarrik ez, nire bizitzan ere garrantzi handia du. Umorerik gabe, tintarik gabeko boligrafoa nintzateke, edo letrarik gabeko liburua. Kontua da irakurleei nire umore hori gustatzen zaien ala ez.

9. Zureak dira egun eskoletan kantatzen diren kanta (*Astoa ikusi nuen*, kasu) eta olerki asko. Zer sentitzen du batek bere lanak horrelako arrakasta izan duenean? Eta kanta eta lan horiek hain herrikoiak egin direnean, non egilea nor den ez den agertzen?

Urte asko dira *Astoa ikusi nuen* eta beste dozenaren bat kanturen letrak egin nituela, Zarauzko ikastolan

irakasle edo, orduan esaten zen bezala, «mais» ibili nintzen garaian hain zuzen. Ilusio handia egiten dit horietako kanturen bat irratian edo beste nonbait entzuten dudanean. Ikastoletan eta eskola batzuetan ezagutzen dituzte oraindik horietako kanturen batzuk. Pozgarria da niretzat.

Kanta horien letrak izenik gabe agertzen direnetan, ez naiz haserretzen. Herrikoi bihurtu direla pentsatzen dut, eta hori ohore handia da niretzat, ohore isila, xumea, herrikoi, ohore zaratatsuak baino barrurago heltzen dena.

10. Itzultzaile lanetan zu zara Euskal Herrian gehien itzuli dutenetako bat, zer nolako harremana (lan egitekoan) izan duzu itzuli dituzun liburuen egileekin?

Nik itzuli ditudan liburuen egileekin ez dut askotan hitzik egin, hilda zeudelako edo ezagutzen ez nituelako. Nik itzuli nuen lehenengoetako liburua «Ketxusen zooa» izan zen, eta asko saldu zen garai hartan. Originala katalanez idatzi zuen egileak, baina nik gaztelaniatik itzuli nuen: «El zoo de Pitus». Jakin nuen egilea, Sebastian Sorribas, haserre samar zegoela pertsonaia nagusiari izena

aldatu niolako. Eta Bartzelonan berarekin topo egin nuen batean, esan nion ni nintzela Pitus Ketxus bihurtu zuena. Ordurako pasatua zitzaion haserre. Baina artean hasi berria nintzen ni liburuak itzultzen, eta asko neukan ikasteko.

11. Elkar-en ahalegin berezia egin duzue tradizioa jasotzeko (Dona, dona bilduma adibidez); sentsibiltate hori erakutsi izan duzue, baina zer gehiago egin beharko litzateke, hala ere?

Gauza asko dago egiteko tradizioaren inguruan. Tradizioa, nire ustez, transmititu egin behar da, ahoz eta idatziz. Askotan iruditzen zaigu tradizioa gauza zaharkitu bat dela, baina gaurko bizimoduan txertatu behar dugu, horretarako, batzuetan, pixka bat moldatzea komeni bada ere. Gai honi garrantzia ematen diotenen esku dago ideia berriak proposatzea eta aurrera eramaten saiatzea.

12. Etorkizuneko irakurle berriei begira, zer gehiago egin beharko litzateke argialetxe, idazle eta ilustratzaileen partetik hura harrapatzeko? Forma berririk saiatu beharko al genuke?

Galdera hau ez dut oso ondo ulertzen. Nor

harrapatu behar da? Nik uste dut ez dela inor harrapatu behar. Irakurle berriak nola sortu? Hori bada galdera, nik ez daukat soluzio magikorik. Iruditzen zait etxea eta eskola direla bi leku garrantzitsu horretarako. Ondo dago bietan saiatzea, baina obsesiorik gabe eta era baikorren, irakurtzeko afizioak pertsonari mesede egiten diola erakutsiz.


Batzuek esaten dute oso kezkatuta daudela haurrek gutxi irakurtzen dutelako, baina nik ez diet hori denei sinesten. Gauza bat da kezkatuta daudela esatea eta beste bat kezkatuta egotea.

Jendea irakurzaletzeko forma berriak? Adibidez: etxean, afal ondoren, edo beste momenturen batean, egongelan, bakoitzak liburu bat hartu eskuetan eta isil-isilik irakurtzen egon ordu erdi batez edo gehiago. Ez litzateke txarra izango hori astean egun batez etxeko guztiek batera egitea.

13. Geratu al zaizu zuk bereziki atera nahi zenuen libururen bat apalean?, izan kosteagatik, arriskuagatik...

Bai, nire ipuinen bat edo beste geratu da argitaratu gabe, ez hain zuzen kosteagatik, baizik





nire lankideei ez zaielako argitaratzeko modukoa iruditu.

Gogoratzen naiz, baita ere, egile ezagun baten poesia liburu bat koloretako marrazkiekin argitaratu nahi izan nuela eta ahalegin handiak egin nituela horretarako, baina ez genuen argitaratzerik izan oso garesti ateratzen zelako.

Badira onak iruditu arren, arrazoiren batengatik edo besterengatik, gu argitaratzera ausartu ez garen liburuak ere.

Salbuespenak salbuespen, zaila da liburu bat argitaratzea argitaletxeari liburu horrekin zor garbia egingo duela iruditzen bazaio.

Bada nik atera izan nahi dudana liburu bat, egile askoren partaidetzarekin, baina ez dugu lortu proiektu hori aurrera eramaterik. Kasu horretan liburu osatzean datza zailtasuna. Agian, egunen batean...

14. Gomendatuko al zeniguke zure ustez ezinbestekoa beharko lukeen libururen bat (berdin dio jatorria), beste bat euskaraz sortua, beste bat euskara itzulita eta bukatzeko argitaletxe bat (Elkar ez dena)?

Nik uste dut ez dagoela ezinbestekoa izan beharko lukeen libururik. Hori bakoitzaren esku dago. Nik liburu asko ditut gogoko, baina ez zait iruditzen bat bera ere «ezinbestekoa» denik. Hala ere, oso gogokoak ditudan bi liburu aipatuko ditut, bata euskaraz eta bestea gazteleraz: *Atzoko Zegama* (Xabier Azurmendi) eta *Relatos y poemas para niños extremadamente inteligentes de todas las edades* (Harold Bloom). Euskarara itzulitakoen artean, adibidez, orain dela gutxi oso gustura irakurri dut: *Jainkoaz beste berri batzuk* (Manuel Olasagasti).

Argitaletxerik ere ez dago ezinbestekorik. Nik Elkar-en lan egin dut beti, eta besteen artean publikoki bat aholkatzeari ez diot batere zentzurik bilatzen. Denek izango dute zerbait ona eta zerbait txarra. Enpate.


15. Zure ustez, «errelebo generazionala» ziurtatuta al dago?

Bai. Nahiz idazleen mailan eta nahiz argitalpengintzan. Irakurtze kontuan ez dakit. Garbi dago guraso irakurzaleen seme-alaba guztiak ez direla irakurzaleak ateratzen. Baina, batzuetan, irakurtzeko zaletasunik ez duten gurasoen seme-alabak liburuzaleak izaten dira. Baina hala ere, iruditzen zait gero eta liburu gutxiago irakurtzen dela, nahiz eta inoiz baino liburu gehiago egon.

16. Orain, behin erretiroa hartu ondoren, lanean jarraitzeko asmorik ba al duzu? Zer proiektu dituzu eskuen artean?

Ez daukat proiektu berezirik. Lasaiago bizi, irakurri, idatzi...

Alferkerian erori gabe, baina neure burua programatu gabe bizi nahi dut, normal-normal.



Entrevista con Joxan Ormazabal

Joxan Ormazabal (Zegama, 1948). Estudio Magisterio y ejerció de maestro durante algunos años. En 1981 empezó a trabajar en la editorial Elkarlanean, recientemente se ha jubilado. Él ha sido de los pocos que ha podido seguir in situ la evolución de la LII vasca. Es autor de muchos libros y traductor de otros tantos.

En la entrevista Joxan nos habla de cómo ve el pasado, presente y futuro de la LII vasca; de su relación con los autores en su labor de editor, de la que mantuvo con los autores a los que tradujo; de las diferencias entre los géneros literarios, de los riesgos de la literatura...

En definitiva, una entrevista jugosa a quien ha recorrido todos los caminos de la literatura.

Interview given by Joxan Ormazabal

Joxan Ormazabal (Zegama, 1948). He did teacher training and worked as a teacher for a number of years. In 1981, he joined the Elkarlanean publishing house, from which he has recently retired. He is one of the few who has been able to monitor the development of Basque Literature for Children and Young Adults in situ. He has written many books and has translated as many, too.

In the interview, Joxan tells us how he sees the past, present and future of Basque Literature for Children and Young Adults; about his relationship with authors in his work as a publisher, the one he had with the authors whose works he translated; about the differences between the literary genres and the risks of literature, etc.

In short, a juicy interview given by a person who has been down all the roads of literature.